

Debagoieneko liburutegiek 'Biblioporrak gida' kaleratu dute irakurketa bultzatzeko

Adin guztientzako liburu eta ikus-entzunezko materiala bildu dute udako denboraldirako

Ohiturari jarraituz, Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako udal liburutegiek, Aramaio eta Legazpikoekin batera, Biblioporrak Gida 2008 kaleratu dute. Bertan, adin eta gustu ezberdinetako liburuak, musika diskoak eta pelikulak proposa-tzen dituzte.

Era honetan, ekimen honen helburua jendea aisialdian irakurtzera bultzatzea da, batez ere, udako hilabeteetan. Guztira, 96 eleberri, saiakera eta ipuin desberdinak biltzen ditu gida honek, euskaraz zein gaztelaniaz. Zerotik sei urtera bitartekoei kolorez eta marrazkiz betetako ipuinak proposatzen dizkiete: Jenio gaiztoa (Pello Añorga), En casa (Soledad Bravi); Ernesto (Lola Casas) eta Egun bat hondartzan (Peter Elliot), besteak beste. Gaztetxo eta gazteentzat, ordea, ondo pasa-tzeko liburuak ere ez dira faltako. Hauen artean, Nieves Perez Riveroren Mi abuelo Simón lo sabe, Francesa Chessaren Hollyren bota gorriak, Karlos Linazasororen Etzi, Patxi Zubizarretaren Pantaleon lagunekin doa, Ricardo Gomezen Siete cuentos crudos: aunque este no sea un buen sitio para nacer edo Luis Duranen Aljebra.

Helduek ere hainbat aukera dituzte eskura: Eider Rodriguez idazlearen Haragia izenburuko obra, Jokin Muñozen Antzararen bidea, Milena Agusen Mal de Piedras edo Karin Fossumen Una mujer en tu camino. Aipatutako gida udal liburutegietan lortzeaz gain, hainbat leku publikotean ere egongo da eskuragarri, anbulatorio, liburudenda eta tabernetan, hain zuzen ere.

Udako ordutegia oñatin Oñatiko liburutegiko arduradunek azaldu duten bezala, bihartik aurrera haurrentzako zerbitzuan udako ordutegia jarriko dute martxan. Beraz, 10.00etatik 13.00etara bitartean egongo da zabalik. Helduen-tzako liburutegian eta mediatekan, aldiz, aldaketa hori hilaren 30ean ezarriko dute. >a.d.